Universidad del País Vasco · Euskal Herriko Unibertsitatea — ZUZENBIDE FAKULTATEA / FACULTAD DE DERECHO

JUSTIZIA SOZIALAREN ALDEKO KLINIKA JURIDIKOA — JSKJ CJJS — UPV EHU — CLÍNICA JURÍDICA POR LA JUSTICIA SOCIAL

**ZUZENDARITZA KONTSEILUAREN AKTA/ ACTA DE REUNIÓN DEL CONSEJO DE DIRECCIÓN**

**Data/Fecha**: 2025eko otsailaren 17an/ 17 de febrero de 2025
**Tokia/Lugar**: Online
**Ordua/hora:** 12:00-13:30

| **Bertaratuak:** | | **Ezin etorria adierazi dutenak:** | **Etorri ez direnak:** |
|---|---|---|---|
| Amadeo Szpiga | Joseba Ezeiza | Leyre Hernandez | Ana Rosa Gonzalez |
| Ana Leturia | Juana Goizueta | Andrea Bertomeu | Juan Aldaz |
| Auxkin Galarraga | Maggy Barrere | Miren Odriozola | |
| Alazne Irigoyen | Oscar Abalde | Iker Barbero | |
| Fernando Tapia | Oscar Arroyuelo | | |
| Itziar Altuzarra | Idoia Igartua | | |

| **AZTERGAIAK** | **ORDEN DEL DÍA** |
|---|---|
| 1. Aurreko bileraren akta onartzea<br>2. Zuzendaritzaren txostena<br>3. 2023/24 ikasturteko txostenaren onarpena<br>4. Ikasleen aukeraketa prozesua<br>5. 2024/2025 mintegi iraunkorraren egutegiaren onarpena<br>6. Berrikuntza proiektuari buruzko emaitzak<br>7. Proiektu pilotuari buruzko informazioa<br>8. 2024/2025 ikasturtearen finantzazioa<br>9. Galde-eskeak. | 1. Aprobación del acta de la sesión anterior<br>2. Informe de la Dirección<br>3. Aprobación del informe curso 2023/2024<br>4. Proceso selección alumnado<br>5. Aprobación calendario seminario permanente 2024/2025<br>6. Resultados del proyecto de innovación<br>7. Información marcha proyecto piloto<br>8. Financiación curso 2024/2025<br>9. Ruegos y preguntas. |
| **1. Aurreko bileraren akta onartzea.** Zuzenketa batzuk egin ondoren, baiespenez onartu da.<br><br>**2. Zuzendaritzaren txostena.**<br><br>**2.1. Baja baten berri.** Juan Aldaz Kontseiluko kideak Zuzendaritza Batzordearen ardurak utzi beharra adierazi du. Esker ona adierazi zaio egindako ekarpenagatik, eta lankidetzan jarraitzeko erakutsi duen prestasunagatik.<br><br>**2.2. Idazkaritza administratiboa.** Idazkaritzan JSKJaren kudeaketarako esleitutako lankideak bere lanpostua utzi du. Martxoaren amaiera arte ezin izango da zehaztu zein lankidek hartuko duen ardura hau etorkizunean. Bitartean, barruko baliabideen bidez eramango dira aurrera. Hala ere, joan-etorriak eta ponentzien gastuen ordainketak bideratuta daude, kasu gehienetan. | **1. Aprobación del acta de la sesión anterior.** Se aprueba por asentimiento.<br><br>**2. Informe de las dirección.**<br><br>**2.1. Baja en el Consejo de Dirección.** Juan Aldaz, miembro del Consejo, manifiesta la necesidad de dejar las responsabilidades de la Junta Directiva. Se le agradece su aportación y su disposición a seguir colaborando en la clínica.<br><br>**2.2. Secretaría administrativa.** La persona asignada a la gestión de la CJJS en Secretaría ha cesado en su puesto. Hasta finales de marzo no se podrá determinar quién será la persona que asumirá esta responsabilidad en el futuro. En tanto, se llevarán a cabo a través de recursos internos. Se informa de que, no obstante, los desplazamientos y los pagos de los gastos, en su mayoría, están ya encarrilados. |

| | |
|---|---|
| **2.3. Lankide berriak.** Amanda Verrone doktoregaiak JSKJan parte hartzeko eskaria egin du. Ongi etorria eman zaio. | **2.3. Nueva incorporación.** La doctoranda Amanda Verrone ha comunicado su interés en incorporarse a la CJJS. Se le brinda una afectuosa bienvenida. |
| **2.4. Klinika Juridikoen Elkartea.** Errioxan berriki egindako elkartean eskatu dute hurrengo urteko biltzarra Donostian egitea. Bideragarri delakoan, gogo onez onartu zen gonbita. | **2.4. Asociación de Clínicas Jurídicas**. En el encuentro celebrado recientemente en La Rioja se ha propuesto la realización del siguiente encuentro en nuestra facultad. Considerando viable su organización, se acepta la invitación. |
| **2.5. Klinika juridikoei egindako eskaera.** ANECA transferentzia sozialari buruz egiten ari den dokumentuaren prozesuan, Klinika Juridikoei erreferentzia esplizitua egitea proposatu da. Berri pozgarritzat jo da. Litekeena da batzorde bat sortzea Klinika Juridikoen aldetik gaia formalki bideratzeko. | **2.5. Solicitud dirigida a las clínicas jurídicas.** En el proceso de elaboración del documento relativo a la transferencia social, se ha propuesto a la ANECA incorporar una referencia explícita a las Clínicas Jurídicas. Se considera una noticia alentadora. Es probable que se cree una comisión por parte de las Clínicas Jurídicas para encauzar formalmente esta propuesta. |
| **3. Klinikaren Erregelamendua aldatzeko proposamena: Zuzendaritza Batzordearen hedapena ahalbidetzeko.** Indarrean dagoen erregelamenduak nabarmen mugatzen du Batzordearen osaera eta tamaina. 11. artikulua aldatzeko proposamena egin da. Batetik, batzordea 25 lagunera arte hedatzeko aukera egotea proposatuko da. Bestetik, kolektiboen ordezkaritzari jartzen zaizkion portzentajeak kentzea proposatuko da. Fakultate Batzarrera helaraziko da, aztertu eta ontzat eman dadin. | **3. Propuesta de modificación del Reglamento, para posibilitar la ampliación de la Junta Directiva de la clínica.** El reglamento vigente limita considerablemente la composición y tamaño de la Junta. Se propone modificar el artículo 11. Por un lado, se propondrá la posibilidad de ampliar la comisión hasta 25 personas. Por otro lado, se propondrá la eliminación de los porcentajes asignados a la representación por colectivo. Se trasladará a la Junta de Facultad para su consideración, con propuesta de aprobación. |
| **4. Hauteskunde prozesua irekitzea: Zuzendaritza Batzordea berritzea.** Zuzenbide Fakultateko Batzarrera Zuzendaritza Batzordearen berritzea eskatu behar zaio. Uneko Batzordeak dagoen horretan jarraitzea proposatuko da. Behin batzordea berrituta, zuzendaritza hautatzeko prozesua zabalduko da. Zuzendariek adierazi dute zuzendaritzan jarraitzeko ezintasuna. Juntakideak animatu dituzte euren hautagaitza aurkeztera, eta klinikaren proiektuaren lidergoa hartzera. | **4. Apertura del proceso electoral: renovación de la Junta Directiva**. Se acuerda solicitar a la Junta de la Facultad de Derecho la renovación de la Junta Directiva de la CJJS. Se propondrá la continuidad de la Junta actual. Una vez renovada la Junta se abrirá el proceso de selección de la dirección. Las Directoras señalan la necesidad de relevo en la Dirección dela clínica. Anima a las personas que conforma la junta a postularse para la dirección de la misma. |
| **5. Estatuko Klinika Juridikoen Biltzarra 2025eko udazkenean Donostian.** Antolaketa bideratzeko batzorde bat izendatzea proposatu da. Juana Goizueta eta Maggy Barrere prest daude parte hartzeko batzordean, baina beste bi lagun gehiago egotea eskatu da. Biltzarrari aterpea emango dion gaia proposatu beharko da. Behin-behinean, hau proposatu da: ***Klinika Juridikoak eraldaketa juridiko-politikoaren agente gisa***. | **5. En cuentro de Clínicas Jurídicas del Estado en otoño de 2025 en Donostia.** Se propone la designación de una comisión de organización. Juana Goizueta y Maggy Barrere se ofrecen a liderar el proceso, pero solicitan el apoyo de otras dos personas. Se deberá proponer un tema que dé cobijo al Congreso. Provisionalmente se propone la siguiente línea temática: ***Las Clínicas Jurídicas como agentes de transformación jurídico-política***. |

| | |
|---|---|
| Horrekin batera, programazioa egituratzen lagundu beharko da, eta horrez gain, kanpotik datozen kideei laguntza ematea joan-etorriekin, egoitzekin.... | Igualmente, se recuerda la necesidad de colaborar en la estructuración de la programación, y en el acompañamiento a asistentes procedentes del exterior con desplazamientos, alojamiento... |
| Babesleak lortzeko aukera ere aztertuko du batzordeak. IKERBILERAK deialdia kontuan hartzeko aukera proposatu da. | La Comisión estudiará también la posibilidad de obtener patrocinios. Se propone la posibilidad de tener en cuenta la convocatoria IKERBILERAK. |
| **6. Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektua.** Aurreko proiektuaren luzapena tramitatu da. Etapa berrian, Ana Leturiak hartuko du Juana Goizuetaren tokia kozuzendari gisa. Luzapenaren onarpena egiaztatzen denean, lan-taldea zabaltzeko eskaria bideratuko da. Era berean, gogorarazi da garrantzitsua dela DOCENTIAZ akreditazioa eguneratua ez duten pertsonek, eguneratzea bidera dezatela, aukeran, proiektu paralelo bat ere eskuratu ahal izateko hurrengo deialdian, eta proiektu hori abiatzeko orain martxan dagoenarekin batera. | **6. Proyecto de Innovación Educativa**. Se informa de que se ha tramitado la prórroga del proyecto vigente. En la nueva etapa, Ana Leturia ocupará el puesto de la codirectora de Juana Goizueta. Verificada la aceptación de la prórroga, se tramitará la solicitud de cambio en la dirección del proyecto y los relevos/incorporaciones en el equipo de trabajo. Asimismo, se recuerda la importancia de que aquellas personas que no dispongan de acreditación DOCENTIAZ actualizada, la obtengan, ya que ello permitiría solicitar un proyecto paralelo la siguiente convocatoria. |
| **7. Nazioarteko Babesaren inguruko laguntza eskaintzeko proiektuaren ezarpena**. Jakinarazi da jada martxan jarri dela proiektuaren fase pilotua. | **7. Implementación del proyecto de asistencia en materia de Protección Internacional.** Se informa que ya se ha puesto en marcha la fase piloto del proyecto. |
| Sei ikasle hasi dira lanean: Psikologiako Graduko ikasle bat, Psikologiako Masterreko ikasle bat, Zuzenbide Graduko bi ikasle eta Kriminologiako Graduko ikasle bat. Bost ikasle horietako bi JSKJko kideak. Horrez gain, JSKJaren hiru kide ari dira parte hartzen orain arte, eta Psikologia Fakultateko hiru irakasle. | Se han incorporado seis estudiantes procedentes del Grado en Psicología (1), del Máster en Psicología Clínica (1), del Grado en Derecho (2) y del Grado en Criminología (1). Dos estudiantes pertenecen al a CJJS. También se han incorporado tres miembros de la CJJS y tres docentes de la Facultad de Psicología. |
| Hiru kasu lantzea aurreikusita zeuden, baina kasuetako bat jada ebatzi da, eta aldeko irizpena izan duenez, kasu hau baztertu da, eta beste bat hautatu da horren ordez, fase pilotuan lantzeko. Ikasleek jada jaso dute formazio osagarriaren lehen fasea, eta laster hasiko dira hautatutako kasuen lanketarekin. | Inicialmente, estaba prevista el abordaje de tres casos pero, dado que uno de ellos ya ha sido resuelto y ha sido dictaminado favorablemente, se ha sustituido por otro. El estudiantado ya ha recibido la primera fase de formación complementaria y en breve comenzará con el análisis de los casos seleccionados. |
| Une honetan aztertzen ari dira zerbitzua zabaltzea, aurre-kontsulta bat egin nahi duten pertsonei arreta jartzeko. Horrekin batera, pertsona interesdunei laguntza eskain diezaieketen baliabideen direktorio bat egitea aurreikusten da. Azkenik, formazio-baliabideak berrikusi eta antolatzea ere aurreikusten da, eta, era berean, iragarri da laster abiatuko direla aurretik klinikaren baliabideen biltegian jasota dauden grabazio batzuk eguneratzeko lanak. | En estos momentos se está estudiando la ampliación del servicio para atender a las personas a consultas previas. Igualmente, se informa de que se está trabajando en la elaboración de un directorio de recursos que puedan ofrecer apoyo a las personas interesadas. También, se prevé la actualización de los recursos formativos disponibles, así como la actualización de algunas grabaciones que se encuentran en el repositorio de la clínica. |

| | |
|---|---|
| Proiektuaren berri webgunean agertzeko lehen urratsak ematen hasiko dira. Hurrengo bilerara ekarriko da proposamen bat. | En breve se iniciarán las primeras acciones para incorporar el proyecto al a web de la clínica. Se trasladará la propuesta en una reunión futura. |
| **8. Norberak lekarkeena**. Etorkizunera begira, unibertsitate/gizartea gela aurreratu baten proiektua garatzeko aukera iradoki da. | **8. Ruegos y preguntas.** Se sugiere considerar la posibilidad de desarrollar un proyecto de aula avanzada universidad-sociedad. |